


Aretxagazeta



Horra,
gure Olentzero

'Olentzero
marrakzi
lehiaketa'ko
irabazlea.
Egilea:
Miren Ugarte,
9 urte.



Gemma barruko arropa
LIE LURRINDEGIA
Mitarte 18. 943 79 38 59



Eraztuna
MIREN ZURIÑE BITXITEGIA
Otalora 4. 943 77 13 57



Nordikas etxeko zapatilak
ZUBIA OINETAKOAK
Mitarte 14. 943 79 16 00



Sandoz erlojuak
MARTIN ERLOJU DENDA
Mitarte 16. 943 79 01 72



Bandolli jaka
ANA'S JANTZI DENDA
Iparragirre 4



Petit Boy jaka eta prakak
HAURRAK JANTZI DENDA
Lezama zentro komertziala 15. 943 77 14 86



Little Kiss kamisola
IRIARTE UMEEN ARROPA ETA LENTZERIA
Durana 8. 943 79 10 96

OPARI BERRI ON!



La Perla perfumea
PAGALDAI OPARIAK
Durana 33. 943 79 10 14




Art Deco ezpainenako kolorea
GEMES EDERTZE ARETOA
Durana 40. 943 79 99 18



Little Kiss barruko arropa
LEINTZ ROSSI MERTZERIA
Errekabarren 3. 943 79 78 63

ATREBENTZIAEZPADA/ Ondo portau zara aurten? Hortan, ze eskatuko dutzezu Olentzerori?




JOXE BENITO AYASTUY
jubilaue




NIEVES GONZÁLEZ
langillie



JASONE GORROÑO
langillie



EDUARDO URKIA
jubilaue



SANDRA LÓPEZ
ikaslie



PEDRO URTEAGA
jubilaue

Neure ustez, ondo portau naz, baiñe hori neure ingurukuei egin biherreko galderie da. Sorpresaren bat espero dot. Olentzerori ez dutzet ezer eskaketan, baiñe beti ekarten dust zeozer.

Bai, oso ondo portau naze-la esan neike. Olentzerori ez dutzet eskari formalik egin, baiñe eskatu... Kanarietara fateko biaje bat eskafuko dutzet; eskatu barik ez daixela geratu, behintzet!

Usto dot ondo portau naze-la. Ez dauket, behintzet, ARETXAGAZETAn kontetako moduko pekatutxorik. Olentzerori ez dutzet ezer eskatu, baiñe zerbait ekarriko dust.

Bai, edarto portau naz aurten. Olentzerori osasune ekarteko eskatu dutzet. Eta bestelako oparixoren bat ekarteko gogue badauko, hori be hartu eta pozik geratuko naz.

Bai, oso-oso ondo portau naz. Aurten, kotxe txiki eta politte eskatu dutzet Olentzerori. Seguruenik ez dust ekarriko eskatutakue, baiñe eskatu barik ez daixela geratu!

Ez dot iñokin be burrukarik egin; hortan, ondo portau nazela esan biher. Olentzerori, barrez, ez dutzet ezer eskatu... Eskien ibiltteko beste jente mordue be badago-eta.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 21
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 22
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

AZATZAN
Domeketan: 11:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

LORAMENDIRENAGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI

2003. urteko Seaskako egutegiak salgai daude Loramendi elkartearen egoitzan. Pasa zaitez handik, 16:00etatik aurrera. Gabonetako opari polita izan daiteke!

LAN ESKAINTZA

Loramendi Euskara Elkarteak koordinazio lanak egingo dituen langilea kontratatu gura du. Informazio zabalagoa jasotzeko: 943 77 09 70.

OHARRAK

ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRAREN KONTZERTUA
Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du, bihar, zapatua, eliza nagusian, 20:00etan.

BIDEZKO MERKATARITZA AZOKA

Hirugarren Munduari laguntza ematen dion Hiruatx elkarteak Bidezko Merkataritza Azoka jarriko du, egun osoan, udaletxe zaharrean.

JUSTINO URIBESALGOREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Justino Uribesalgoren argazkiak jarriko dituzte ikusgai, gaurtik urtarrilaren 5era bitartean, udaletxe zaharrean. Erakusketa 12:30etik 14:30era egongo da zabalik.

ABESBATZAREN EMANALDIA

Aretxabaletako Abesbatzak kantu emanaldia egingo du, abenduaren 29an (domeka), eliza nagusian, 19:00etan.

EMANALDI LIRIKOA

Bjelaveko umezurtz etxearen alde kontzertu lirikoa egingo dute. Ekitaldia eliza nagusian egingo dute, 20:00etan.

ANTZERKIA

Urtarrilaren 18an, *Natatsa* umeen-lako antzerkia egingo dute ludotekan.

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Konponbideak, elkarbizitzarako ekinbidea

Etxeko buzoietan bertan jaso dugu *Konponbideak, elkarbizitzarako ekinbidea* izeneko txostena, adineko emakume baten begirada goxo eta konplizeak dei eginaz eta azpian sinadura: Eusko Jaurlaritza.

Oraingoan ezin bada esan aukerarik ez dugula izan jakinean egoteko zer den euskal gizarteak, geuk, han eta hemen entzun duguna.

Bai, irakurri dugu, interpretazio pertsonala egin ere bai eta batzuk, gutxi batzuk, guztion izenean arduratu dira alde zein kontrako iritzia ematen eta

besteok isilik.

Iritzia eman dutenek galdetu al die ustez ordezkatzan dituztenei zein den bakoitzaren iritzia? Eta ordezkatuok, egin al dugu hausnarketa propiorik proposamenaren inguruan ala sinadura ikusteaz bat alde edo kontra jarri gara usaindu ere egin barik?

Iritzia emateak, konpromisoa eta koherentzia dakartza eta garrantzitsuena dena: norberarentzako lasaitasuna eta bakea.

Euskaldun sentitzen gare-nok, Euskal Herria maite dugunok gure herria maite dugulako da. Hain gara garrantzizkoak... Gure buruarengan sinistu

egin behar dugu, aurreko esperientziaz baliatu, konfiantza eduki, inplikatu, norberak erabaki, gure iritzia ondokoarekin konpartitu.

Etorkezuna irudikatzeak huts egiteko arriskua ere badauka baina zergatik ez amesten dugun Euskal Herria ez ekarri gaurko egunera?

Mundua, erakundez, elkartez, alderdiz, taldez, herriz... osatuta dago eta hortxe bizi gara. Berauek ulertzeko moduak eta berauegan dugun eraginak adierazten du, etorkizuneko gizartea hobetzeko dugun ahalmena.

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Maitane Dorda
17an, 14 urte. Zorionak, etxeokoen partetik.



ARETXABALETA
Esther L. de Armentia
16an. Urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA
Mari Carmen L. de Armentia
5ean. Zorionak! Etxekoak.



ARETXABALETA
Sole Uribetxebarria
30ean. Urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA
Martzelino Ugalde
22an. Zorionak! ARETXAGAZETAko neskek.

Aretxagazeta

durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

MARRAZKI LEHIAKETA/ Kurtzebarrikoek, Santa Ritakoek eta Arizmendi Almen gunekoek hartu dute parte Gabonetako Marrazki Lehiaketan

Kolore eta forma guztietako Olentzeroak marraztu dituzte herriko gaztetxoek

AMAGOIA LASAGABASTER

Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Loramendi Euskara Elkarteak Gabonetako Marrazki Lehiaketa antolatu dute aurten. Hiru eskolatako umeek hartu dute parte, eta denek Olentzeroren marrazkiak egin dituzte.

Arizmendi Almen guneko, Santa Ritako eta Kurtzebarriko ikasleek hartu dute parte Gabonetako Marrazki Lehiaketan. Denera, 506 gaztek egin dute Olentzeroren marrazkia. Pausoka Haur Eskolakoek, berriz, ez dute parterik hartu Marrazki Lehiaketan, hango ardura-dunen erabakiari jarraituz.



Miren Ugarte / 9 urte
Kurtzebarri Herri Eskola

OPARI BANAKETA EKITALDIA. Astelehenean, hilak 16, opari banaketa ekitaldia egin zuten Algara ludotekan. Hala, Marrazki Lehiaketako irabazle guztiei opariak eman zizkieten: batetik, euren marrazkiarekin egindako ARETXAGAZETA-ren azala; eta, bestetik, gozoki-poltsa. Gero, ospetsuen moduan, argazki sesiorako modelo lanak egin, eta GOITBko kazetariak egindako galderari erantzun zizkieten. Datorren urtean ere marrazki bana egin, eta Gabonetako Marrazki lehiaketa berriro irabazteko gertu azaldu ziren neska-mutil guztiak.



Eneko L. de Armentia / 7 urte
Arizmendi Almen gunea



Joseba Urrutia / 6 urte
Arizmendi Almen gunea



Julen Ugarte / 12 urte
Kurtzebarri Herri Eskola



Juncal González / 3 urte
Kurtzebarri Herri Eskola



Iñaki Carrillo / 5 urte
Santa Rita Haur Eskola



Iñaki Sáenz / 2 urte
Kurtzebarri Herri Eskola



Ainhoa Sánchez / 4 urte
Santa Rita Haur Eskola



Lide Arenaza / 10 urte
Arizmendi Almen gunea



Ibone Andrés / 8 urte
Kurtzebarri Herri Eskola



Jone Meabe / 11 urte
Arizmendi Almen gunea

GABONAK/ Dena gertu dago Olentzerori, Bizar Zuriri eta Errege Magoei ongietorria egiteko

Olentzeroren, Bizar Zuriren eta Errege Magoen etorrera

AMAGOIA LASABASTER

Gabonak ez lirateke Gabonak izango Olentzero, Bizar Zuri eta Errege Magoen etorrera barik. Horregatik, dagoeneko dena gertu dago gutunak batu eta opariak ekartzen dituztenei ongietorria egiteko. Abenduaren 24an, gainera, kantaldiak egingo dituzte.

Gabonetan herritarrek ez dute aspertzeko aukerarik izango. Udaleko Kultura Sailak, behintzat, ahalegina egin du Gabonetako opor egunak ondo pasa ditzagun.

Eta-horretarako, betiko moduan, Gabonetako ekitaldien egitaraua kaleratu dute. Horiek ere Negu Kulturaleko ekintzen barruan aurkituko dituzue.

GABON EGUNA

Olentzero, urtero legez, abenduaren 24an etorriko da herrira. Ilunkaran emango diote ongietorria, baina aurretik, egunean barrena hainbat ekitaldi egingo dituzte: batetik, goizean, gura dutenek baserritar jantzi, eta baserriz baserri kantuan ibiltzeko aukera izango dute. Horretarako, 08:30ean elkartuko dira,

Herriko Plazan; bestetik, 10:30ean, herriko guraso eta umeak ibiliko dira, kalean, Gabon kantak abesten; eta, azkenik, 18:30ean, Olentzero helduko da Aretxabaletara.

BIZAR ZURI ETA ERREGE MAGOAK

Olentzero etorri eta opari barik gelditu direnendako beste aukera bat ere izango da: horretarako gutuna idatzi eta abenduaren 31n Bizar Zuriri eman beharko zaio. Bizar Zuri 18:30ean irtengo da, kirol etxetik. Bukatzeko, Errege Magoak ere etorriko dira, urtarilaren 6an, 18:30ean.

TXUTXUMUTXUA



Urutz-Alde elkarteko muslari onenak!

Aurten ere jo eta ke ibili dira musean Urutz-Alde elkarte gastronomikoan. Urtero moduan, Mus Txapelketa antolatu dute, eta orain arte hor ibili dira, hordagoka eta enbidoka. Hamar bikote ibili dira zein baino zein gehiago. Eta horien artean azkarrenek orain dela aste bi inguru altxatu zuten muslari onenaren garaikurra. Irabazleak argazkian azaltzen diren Txomin Galdos *Murri* eta Justo Gruzeta izan ziren. Azken partidak jokatu ostean afari ederra egin zuten, gainera./A. L.

ELKARTASUNA/ Hiruatxek, besteak beste, azken proiektuaren berri eman die herritarrei

Hiruatxek giza elkartasunarekin bizi gura ditu Gabon egunak

AMAGOIA LASABASTER

Hirugarren Munduari laguntzeko Hiruatx elkarteak gutuna bidali die herritarrei, eta jakinarazi die Gabonak hausnarketarako eta giza elkartasunerako egun proposak direla.

Hiruatx elkarteak gutuna bidali die herritarrei. Eta eskatzen die okerra den aberastasun banake-

taren ondorioz behartasunean bizi diren pertsonak aintzat har ditzatela Gabonetan ere. Bide batez, Rukullakta inguruan (Amazonas) kitxwekin batera egingen ari diren proiektuaren berri ere eman die.

Horrez gainera, Hiruatxek jakinarazi du bihar, zapatua, Bidezko Merkataritza Azoka jarriko duela ikusgai, egun osoan, udaletxe zaharrean.



Hiruatxek azoka jarriko du bihar.

LABUR

Atxabaltarrok taldekoek itxialdia egin zuten, hilaren 13tik 14ra bitartean, udaletxean

Atxabaltarrok taldekoek itxialdia egin zuten joan den abenduaren 13tik 14ra bitartean. Hogeita hamar lagun inguru batu ziren Euskal Herriaren eskubideen aldeko itxialdian.

Gauean, afari-tertulia egin zuten. eta gero, *El gran dictador* filma ikusi zuten.

Itxialdia eguerdian amaitu zuten, txalaparta soinuarekin eta triki-poteoarekin.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz
Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

OPEL

Vectra GTS berria: Zeharo asebeteko zaituen mundu berria zure esku

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

URTE BERRI ON GUZTIOI!

Garaje Norten autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



FOTOKIROLA



Isturitzek eta Irasuegik irabazi zuten kirol etxeko Pilota Txapelketa

Joan den zapatuan, hilak 14, amaitu zen kirol etxeak antolatutako eskuz binakako IV. Pilota Txapelketa. Irabazleak Isturitz eta Irasuegi arrasatearrak izan ziren. Bikote horrek partidu ederra jokatu zuen finalean, Korta eta Iturberen aurka, eta azkenean 22-10 irabazi zuen. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke partiduan, berriz, Unanue eta Carrillo Muxikaren eta Sarasuaren aurka aritu ziren zein baino zein gehiago. Emaizta 22-8 izan zen, Muxikaren eta Sarasuaren alde. Pilota Txapelketako irabazleei, hau da, Isturitz eta Irasuegiri, 120 euro eta trofeoa eman zizkien sari gisa, eta Kortari eta Iturberi, 100 euro; Sarasuari eta Muxikari, berriz, 80 euro; eta, azkenik, Unanueri eta Carrillori, 60 euro.

Kirol etxeok urtero antolatzen duten Pilota Txapelketa lagun artekoa izaten da, eta aurten ere horrela izan dela erakutsi dute. Partidu guztietan izan dira madarikazio eta oihi batzuk, baina, oro har, giro ezin hobea izan da nagusi.

FUTBOLA

Preferente mailako UDA taldeak partidu ona jokatu zuen, baina galdu egin zuen

Joan den domekan, preferente mailako UDA taldeak partidu ona jokatu zuen Amaiak Bat taldearen aurka. Hala ere, UDAkoek ez zuten golik egin, eta, azkenean, 1-0 galdu zuten. Bittor Muxikaren mutilak ondo ibili ziren defentsa lanetan, baina golak egiterako orduan huts egin zuten behin eta berriro.

Preferenteko taldeari partidu bi besterik ez zaio falta urtea amaitzeko: lehenengoa bihar, zapatua, jokatu du UDAk, Ibarra futbol zelaian, Trintxerperen aurka; eta bigarrena, etxean hori ere, Pasajesen kontra jokatu beharrekoa izango da. Partidu bi horiek irabaztea oso garrantzitsua izango da UDAREndako.

FUTBOLA

Erregionaleko bigarren mailako UDAk ezin hobeto amaitu du Ligako lehenengo itzulia

Erregionaleko bigarren mailako UDAk ia ez daki zer den partidu bat galtzea. Izan ere, azkenaldian partidu guztiak irabazi ditu. Azken partidua kanpoan jokatu zuen, Zumaiakoren aurka, eta orduan ere 0-2 irabazi zuen UDAk. Nedzadek zuzentzen duen UDA taldeak ondo hasi zuen liga: lehenengo jardunaldietatik, jokalariek euren joko ona erakutsi zuten zelaian, eta orain arte, horrelaxe ibili dira. Hala, ligako lehenengo itzulia bukatuta, UDA taldea lehenengo dago sailkapenean, 30 punturekin. Bestalde, jasotako eta sartutako golen arteko aldea ere ikusgarria da: orain arte, UDAk 49 gol sartu ditu, eta jaso, berriz, 13 besterik ez.

IBARRA JATETXEA

Menua eta karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 70 60




Esko Sport

Zure konfiantzako denda

ZORIONAK HERRITAR GUZTIOI!

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza. 943 71 52 96

LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA



MASTERS

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Angelines

AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

IBARRA

estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

Errege Eguneko loteria opari egiten dugu.
Zer egingo duzu tokatuz gero?

Aitzorrotz elektronikak
Alboka gazte moda
Ana's jantzi denda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Calderon Soledad autozerbitz.
Errasti kioskoa

Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gantxegi harategia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Ibarra estankoa
Iber loteria

Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
Kixkur ileapaindegia
L-10 ileapaindegia
La Brasileña akeita etxea

Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz mertzeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Martxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda

Txilarra dietetika
Xume oihal denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak

Gabon ZORIONTSUAK
igaro ditzazuela!



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETAK
Tel.943 79 94 15



Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETAK. 943 79 20 67

URBALTZ TABERNA



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETAK

ZARAIA

BERRITZE-LANENGATIK ITXITA

Goiz... zerbitzuan
MANTEKA ANAIK
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Baster-Alde jatetxea



Sasoiko jakiak giro onenean

Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58

Mitartegarai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

ESKORIATZAK

Bazkariak eta afariak



Mendiola auzoa
ESKORIATZAK
943 71 43 45
Astelehenetan itxita

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZAK

ALDATZ Taberna

Musika ona entzun dezazun

Tel.: 943 71 41 71
ESKORIATZAK

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

COMPOSTELA Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZAK
943 71 48 70

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 20a / 106. zenbakia



**Gure
ametsetako
Olentzero!**

**'Olentzero
marrakzi
lehiaketa'ko
irabazleak**

JAIK: GABONETAKO EGITARAUJA/13 • LEINTZ GATZAGA: URTEAREN BALANTZEA/14



**EZ HUT'S EGIN
KIROLA OPARITU**

SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE
Garbai etorbidea, 2-6 Gipuzkoa

Aretz

taberna



- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburgesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

ONDO IBILI GABONETAN!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

MARRAZKI LEHIAKETA 2002/ Gatzagako eta Eskoriatzako marrazkilari onenak saritu dituzte

Gatzagako eta Eskoriatzako artista gazteei merezitako sariak eman dizkiete

AINZANE GARDOKI

Margoak eta papera eskuan hartuta, Olentzero izan dute abiapuntu Gatzagako eta Eskoriatzako umeek. 2 eta 12 urte bitarteko 302 ume hartu dute parte Goienak eta Eskoriatzako Udalak antolatu duten Marrazki Lehiaketan. Maila ona erakutsi dute gazteek.

Gatzagako eta Eskoriatzako 302 ume egin zituzten marrazkiak, Olentzero gai hartuta. Epaimahaiaren iritziz, Ibai eta Irati izan ziren Gatzagako umeen artean marrazkilaririk onenak; Eskoriatzarren artean, berriz, Lorea, Maite, Ane, Irati, Jokin, Leire, Esther, Ane eta Maite izan ziren onenak. Gainera, epaimahaiaren arabera, jasotako lanek maila bikaina erakutsi zuten.

MARRAZKIA, GOZOKIAK ETA GABONETAKO PARKERAKO SARRERAK

Ume bakoitzak nork bere marrazkia markoan sartuta jaso zuen opari, Goienaren eskutik. Txikienek, dena dela, eurek egindako marrazkiari baino gehiago, eman zizkieten gozoki-paketei erreparatu zieten. Bestalde, Eskoriatzako Udalak Gabonetan kiroldegian egingo den Gabonetako Parkera joateko gonbidapena eman zien artista txikiei. Batzuen pozak besteen urduritasunak eta negarrak ekarri zituen hasieran; edozelan ere, minutuak aurrera egin ahala, umeak eta gurasoak pozik eta harro zeuden sari bana-keta amaieran. Zorionak!



Ibai Agirreurreta / 11 urte
Kurtzebarri Herri Eskola



Lorea Legazpia / 5 urte
Luis Ezeiza Herri Eskola



Irati Gaztelu / 3 urte
Luis Ezeiza Herri Eskola-Gatzaga



Jokin Moreno / 9 urte
Arizmendi Ikastola, Almen gunea



Leire Uribesalgo / 2 urte
Arizmendi Ikastola, Jose Arana gunea



Maite Santamaría / 10 urte
Luis Ezeiza Herri Eskola



Esther Arroyo / 6 urte
Luis Ezeiza Herri Eskola



Maite de Jesus / 8 urte
Arizmendi Ikastola, Almen gunea



Ane Benito / 7 urte
Luis Ezeiza Herri Eskola



Ane Araeta / 4 urte
Arizmendi Ikastola, Jose Arana gunea

Kontzertuak, hitzaldiak eta antzerkiak jarri ditu aukeran Gazte Asanbladak

AINTZANE GARDOKI

Urtebete pasatxo bada Udalak herriko gazteei zinema zaharra eskaini ziela. Eta gazte talde batek gogotik ekin zion lanari: lokala egokitu zuten lehenengo eta kontzertuak etorri ziren gero. Abenduan, berriz, gainezka datorren egitaraua antolatu dute herritar guztiendako.

Gazte Asanbladako gazteek zapa-turo egiten dute batzarra gazte-txean, 15:30ean: "Gura duten gazteek badakite ateak zabalik dituztela, zenbat eta lagun gehiago izan, orduan eta gauza gehiago egiteko gaitasuna izango dugu-eta", esan digu Gazte Asanbladako kide Iñaki Kortazarrek.

Gazte Asanbladak gertatu duen egitarauaren barruan, joan den egubakoitzean, Torturaren Kontrako Taldeak berbaldia egin zuen; gaur, egubakoitza, kontzertua izango da: Kañeria, Klineks, eta Jodete taldeak izango dira, 21:30ean; bihar, zapatua, *Bella Makia Bella* antzerkia izango da. Datorren egubakoitzean, Anariren kontzertua; eta urtarrilaren 4an, Sorkun eta Sharon Stoner. "Tal-de asko hasi dira deitzen, gazte-



Gazte Asanbladako kideek ikastaroak ere antolatu gura dituzte hurrengo hilabeteetan.

txean kontzertua eskain dezaketen galdezka. Jaiak ere badatozela-eta, hori guztia aprobeztatu gura izan dugu. Baina kontzertuez gain, hitzaldiak, antzerkiak eta,

aurrerago, ikastaroak ere antolatu gura ditugu". Herriko gazteek lekua egin gura dute herrian, "eta herritarrei adierazi gura diegu mundu guztiari zabalik gaudela,

herriaren alde lan egin gura dugulako", dio Iñakik. Bi hilabeteen behin hainbat ekintzarekin osatutako egitaraua antolatu gura dute. Izango dugu euren berri.

"Gura duten gazteek badakite ateak zabalik dituztela. Gehiago izanda, gehiago egingo dugu"

"Hitzaldiak, antzerkiak eta, aurrerago, ikastaroak ere egin gura ditugu"

"Mundu guztiari zabalik gaudela jakinarazi gura dugu. Herriaren alde lan egin gura dugu"



Arizmendin 500 jostailutik gora

Solidaritaterako Hobekuntzako ikasleek bultzatuta, 500 jostailutik gora jaso dituzte Almenen. "Elkartasunaren gaineko kanpaina eta hausnarketa egin gura izan dugu, eta oso pozik gaude emaitzekin", esan digu Alizia Urrutia irakasleak. *Ume bat jostailu bat* kanpainaren helburua ez da izan etxeetan jostailu garbiketa egitea, "norberaren jostailu bat jostailurik ez daukan ume bati ematea bai-zik. Elkartasuna adieraztea". Oñatiko Zerbitzu Sozialak jasoko ditu jostailuak, eta gero banatu egingo ditu. /A.G.

LABUR

200 lagun inguru joango dira Galiziara

Galiziara bidean dira Oñatitik, Arrasatetik eta Eskoriatatik atera diren lau autobusak. Datorren astelehen edo martitzen arte Coruñaiko Carnota herrian egongo dira hango hondartzetako fuel-olioa garbitzen. HUHEZIKo Praktiker Ikerketa Zentrotik jaioko baten ekimena, ondo baino hobeto jakin dute erantzuten Oñatiko eta Arrasateko fakultateetako ikasleek eta irakasleek ere. Hainbat eskoriatzar ere joan dira Galiziara.

OTZETA

TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure
Zerbitzura

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatua
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Gabonetako egitaraua

ABENDUAK 19, EGUENA

17:00 Txistorra-jana, Olazar erretiratuen etxean. Horren ondoren, opari zozketa.

ABENDUAK 20, EGUBAKOITZA

21:30 Rock kontzertua, gaztetxean: Kañeria 13, Klineks eta Jodete taldeak.

22.30 Antzerkia, Unibertsitateko aretoan, Caoz kontalari kolonbiarraren eskutik.

ABENDUAK 21, ZAPATUA

19:00 Antzerkia, gaztetxean: *Bella Makia Bella*.

ABENDUAK 24, MARTITZENA

12:00 Haurrak umeak plazan elkartu, eta Gabonetako kantuek abestuko dituzte kaleetan zehar.

13:00 Trikitixa Eskolako ikasleekin kalejira.

13:00-14:00 Herriko plazan Olentzeroren laguntzaileak izango dira, umeen eskutizak jasotzeko. Eguraldi txarra eginez gero, elizpean izango dira.

17:00 Zaharren egoitzan elkartu, eta herriko kaleetan abestu beharreko kantuen entsegua egingo dute.

17:30 Olentzerori ongietorria egin ondoren, txistulari eta soinu jotzaileekin batera Olentzero kalez kale ibiliko da, herritarron kantuen laguntzarekin.

Bai goizean, bai arratsaldean, herriko plazan gaztaina errete jateko aukera izango dugu.

Oharra: Gabon egunean herritar guztiok euskal jantzi tradizionalak janztera animatu gura zaituztegu.

Abenduak 26 eta 27, eguena eta egubakoitza.

Bi parke mota antolatuta dituzte: bata, kiroldegiko kantxan egongo da; eta bestea, igerilekuan.

Kantxan, puzgarriak, lantegiak eta rokodromoa.

Orduetgia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00

Igerilekuan, uretako hainbat puzgarri egongo dira, ume, gazte eta helduen gozamenetarako.

Orduetgia: 11:00-13:00Denondako

17:00-18:308 urtetik gorakoak

18:30-20:008 urtetik beherakoak

ABENDUAK 27, EGUBAKOITZA

22:00 Kontzertua, Anari, gaztetxean.

ABENDUAK 28, ZAPATUA

Kantxako parkea. Aurreko egunetako orduetegi berean.

ABENDUAK 29, DOMEKA

13:00 Musika Eskolako Bandaren Gabonetako kontzertua, San Pedro elizan.

18:30 Umeendako antzerkia: *Natatxa*. Kiroldegian.

ABENDUAK 26, 27, 28 ETA 29

GABONETAKO PARKEA

Lekua: Intxaurtuetako kiroldegian.

Parkearen prezioa: lau egunerako txartela, 6 euro; egun bakarreko txartela, 3 euro.

URTARRILAK 4, ZAPATUA

22:00 Sorkun-en bakarkako lana eta Sharon Stoner taldearen kontzertua, gaztetxean.

URTARRILAK 5, DOMEKA

18:30 Erregeen kabalgata.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Kultura -batordeak Erakusleho Lehiaketa antolatu du Eskoriatzako denden artean. Parte-hartzaileak honako hauek izango dira: Edurne estetika zentroa, Dorleta paper denda, Viteri jantzi denda, Unzueta burdindegia, Namaste belar denda, Zubia haragitegia eta Ixkur ile apaindegia.

ELKARRIZKETA

OLENTZERO / IKAZKINA

“Inozentzia musua ikustea da politena”

Martitzenean, hilaren 24an, Olentzerok ez du nolana hiko lana izango. Lehentxeago edo beranduxeago izan, herriko etxe guztietaraino helduko den hitz eman digu.

Lanez gainezka ibiliko zara egun hauetan, ezta?

Ez da lan erraza herriko ume guztien nahia betetzea, baina aurretan ere ahaleginduko gara gure lana ondo egiten.

Laguntzaile onak izango dituzu, baina?

Herritarrak, hasieran, motel eta, agian, lotsatuta ere joaten dira, baina herriko kaleetan aurrera egin ahala, jende mordoa batzen da Olentzeroren inguruan.

Zer atsegin duzu gehien?

Oraindik ere umeen musuan inozentzia badagoela ikustea atsegin dut. Liluratuta begiratzen didate askok. Izaten duten ilusioa, beldurra ere bai beste askok... zoragarria da.

Eskatu dizutenaz gain, zer ekarriko zenieke umei?

Telebista eta ordenagailu gu-



txiago, eta lagunekin kalean jolasteko gogoia ekarriko nieke.

Eta nagusiei?

Herriaren aldeko konpromisoa betetako zaku bana.

Eta ikatza, nori?

Galizian gertatzen ari dena ikusita, Espainiako gobernuari, eta Euskal Herriko egoera konpontzeko eseri gura ez dutenei.

Galiziako arrantzaleei zer emango zenieke?

Autoestimua. Goiari eutsi behar diote, bestela, jai daukate.

euskara da oparirik onena

Zabal itzazu mundura jatorrizko bertsioan

Hemen duzu zure ametsetakako oparia, hegoaldeko itsasoak zeharkatzeko, altxorak aurkitzeko, bizitzeko, ederki pasatzeko, familian gozatzeko, lagunartean aritzeko, hemen duzu bizitzaren osorako oparia.

100 produktutik gora dituzu aukeran. Bideorik onenak, mahai jokoak, bideo-jokoak eta CD-ROMak dituzu zain. Alaiak, entretenigarriak, zirraragarriak eta euskaraz!

Bete ezazu txartel hau eta bidali aldizkariaren helbidera -Goiena. Nafarroa etorbidea, 2. 20500 Arrasate-Bideoak, bideojokoak, mahai jokoak, haurrentzako puzzleak ... ditugu zuri oparitzeko.


Izen-abizenak _____

Helbidea _____ P.K _____


Herrig _____ Tel. _____

Goienkaria
DEBAGOIENKO ASTEKARIA

euskaraz? bai.



URTEAREN BALANTZEA / Joxerra Agirreurreta · Alkatea



GABONAK

Gatzaga 2002

Negue. Masusta ederrekin ekin dutsau ilbeltz honi, museoko Aitziberri hankak izozketan jako erru-berie martxan jarteko errekan sartu behar izaten dittuenien. **Abeltzaiñek** gustora daz larretoki berrixekin, biherbada, bedarra erain, lenau egin biher zien, uratzenien edo, bañe udaletxekuek beti berandu ibiltten gare. Ze dakigu guk ba baso kontuetan? Dendie zabalketan gabitz, batenbatek lagunduko ote dusku? "Bajatozak gatzagarrak kaparradie emuten, gogaikarriek dittuk gero" -entzun biheko dogu, osterabe. **Artabilaren** bihorrak hanka biurrituren bat egin ei dau basuen pago tantairen bati tireka. Eztakitt zelan moldauko dien hemetik aurrera, lan haundixe egiten dutze biher txiki horrek. Zapatuetan aspertu egiten gara kaletarrok, **Txarrantxak** eta **Belokik** pelota txapelketie preparau duskue. Ederto atara jaku, **Txori** ta **Haritz** txapeldunek izen die. **Argazkilarixe** ekarri dogu erretratuek atarateko, urte osue emungo dau hortan, gero, filiminetan erakutsiko duskue bere lana. **Domiña** aldien ez ei dabitz oso ondo urakin, bestela be, osasunetik eta, danan biherrien.

Herriko beheko kurba zabalaketakotan gabitz, aldundixek onartu dusku obrie, bañe, propietari-xuekin arazuek dauzkau. Perikok, Gureleko presidentzia utzi dau. Maila haundixe erakutsi dau holako lanetarako. Milla esker danagatik.

Urabarrixe: E-goiena proiektua

zibernetikue gurean da aurkeztuko. **Txironi** potruetatik ebatuko neuskio gure herrixe proposatatu dauelako. Biheleku ederra jarri dust. Honeik kejak besterik ez die, danan akaberan eskerrak emun dutzet, geure herrixe promozionatzeko balixo izan duskulako. **Andrak** osterabe portau die eta ekitaldi hontan talo ederrak preparau dittue inbitauendako, batzuk eskertu egin dutzie... **Imazek** eta **Martzeliñan** lobiek lana topau ei dau Vitorixan, karneta ataraten be **Jokinen** autoeskuelan hasi ei da. **Aiorak** eta **kua-drillako beste danak** be horixe egi biheko laukie. Gatzan oso kombinaziño txarrak dauzkau gero! **Gurelekuek**, umiekin batera gurasuek, Azkixura eruen gaittue danok. Oso leku ederra. Eztabaida gogorrek egon die bazkalorduetan, gatzarrok oso fuerte eztabaidatzen dittuagu gauzak, batzuetan larreiko pasiñuaz. **Landa garapeneko proiektua** Gatzagan aurkeztu daue, horretarako Aldundiko **Murua**, mendi nekazaritzako agintarixek eta abar egon die herrixen.

Dendako proiektuek martxie hartu dau, batenbatzuk konbenzittu dittuau. **Alkatie** bertigiek emun dutzo, holako gizo galanta eta balantzaka ikustie be etzan ba gauza ederrra izango. **Periko**, **Laxaro** ta **alkatie** pantanuen ikusten die sarrittan pasiuen. Beste zeregiñik ez eta hantxe egualdi ederrakin. Eperrak eztau bakarrik Xuberuan kantetan eta batzuk ondio poztu egiten gara hori hola dalako.

"Abeltzaiñek gustora daz larretoki berrixekin, bedarra erain, lenau egin biher zien, bañe..."

"Dendako proiektuek martxie hartu dau, batenbatzuk konbenzittu dittuau"

"Emakume taldie portau da. Sorgiñetatik atara biheko litzake hurrengo alkatie"

Uda: Soran ez da egiten holan. A zelako trabak agerketan dien Indianosekua zaharbarritzeko. Galbarrain azpiko piñuixek eztauko eroslerik. Atxabaltakuekin, **Anjelei** eta **Begoñari** eskerrak, gizarte laguntzailiarena konpon-

duko dogu. San Martin egun bikaiñe atara jakun, **Goienakorik** etzakun agertu, herri handiren baten handikerixaren bat eukiko auen. **Gasze batzuk** eztaz lorontzien kokapenarekin konforme eta hondatu eta alkatie etxaurrien jarri dutzie lorontzixok. Gaztie azkar doiekixue odola eta gaibera bero. **Eskoitzarrakin** autobus proiektua egin guran gabitz. **Baserri-tarrai** etxatie bedarrik sikaketan. Ez da harritzekue dabilen egualdi generuaz. Udaletxeko **ofizini**stie ezkondu egin jaku katalan batekin. **Amaiak** gogotik dihardu san juan bezperakuakin, jaixekin eta abarrekin. **Maria-txeni** zeozereker urten dutzo etxeko errebueltan errubera artetik, eztakigu ondo zerk abixera haundixen oi-elako. **Haritz** eta **Josu** jarri dittugu plaza eta inguruek edarketan.

Uratzena: Jaixekin gabitz burubelarri. Suskoerruberak jarri gure dittuau. Museuen lanparie erre jaku: eztakitt zenbagarren bider. Jai baten pasetan dogu uratzena. **Emakume taldie** portau da, bai jaixetan eta baitte ferixa egunien be. **Itziarrek** eta **etxekuek** ederto egin daue pujetie. **Sorgiñetatik** atara biheko litzake hurrengo alkatie. **Umiek** be portau die. **Jabilo** eta **Jose** fin ibili die euren zereginetan, **Argazkilarixek** akabau dittu lanak. Kanposantue dotore itzi daue. Elixako erlojuek pe tiki-taka, hartu dutzo denporari martxie. Kattagorrixek lapurren gisan, izkutau jaku neguko aterpe beruetara datozen hotzei aurre egin guran edo.



Gertu dago Gabonetako programazioa

AINTZANE GARDOKI

Badabilta GURELeko kideak datozen jaiegunetarako egitaraua osatzen. Oraindik gauza batzuk -egunak eta orduak, esaterako- guztiz zehazteko daude, baina beste batzuk lotuta ditzuzte dagoeneko.

Abenduaren 24an, goizean, herriko umeak eta nagusiak elkartu, eta Olentzerorekin batera baserri baserri kantuan ibiliko dira. Ohiturari jarraituz, elkarrekin bazkalduko dute, elkartean, eta arratsaldean, Marinen kantatu eta gero, herrian astinduko ditzuzte eztarriak.

Abenduaren 26an, eguenean, Bilboko Hiruki taldeak ipuinak kontatuko ditu Garro etxean; bestalde, Gasteizera ere joango dira umeak, zinemara egun baten eta patinatzerara beste egun baten; eta Aretxabaletako Poxpolin Parke-ra joateko aukera ere izango dute hala gura dutenek.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gainerako informazioa emateko, deitu gurera!


943 79 86 21



Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00




Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastañadi auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



Informazioa eta erreserbak
943 58 50 58 eta 617 78 74 32
LEINTZ GATZAGA



ALBOKA
GAZTE MODA

Durana 36 ARETXABALETA 943 77 16 10

Gabonetako
otarra zotz
egingo dugu

Zorionak
eta urte
berri on!



**Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argirtuko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
**Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna****

UDAL
EUSKALTEGIAK

**LEINTZ UDAL
EUSKALTEGIA**

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - 4, Aretxabaleta
Intxartxueta 10, Eskoriatza
Tel: 943 79 21 68 Faxe: 943 79 92 62
leintzeuskalteg@terra.es

AITZORROTZ

elektronika



- Automatismoak eta mantentze-lanak
- Instalazio elektrikoak
- Atezainak eta antena kolektiboak
- Salmenta eta konponketa
- TB-AUDIOA-BIDEOA salmenta eta konponketa
- Canal Satélite Digital
- Via Digital
- Telefonía
- Informatika
- Argiztapena



ELECTRÓNICA AITZORROTZ elektronika
Otalora 14 Tel: 943 79 16 10 Aretxabaleta

ARANZABAL koop. elk. elektrizitatea
Zerkaosteta 15 Tel: 943 79 68 21 Arrasate

Zorionak denoi!